BERBALAGUN PROGRAMA KOORDINATU ETA KUDEATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOAK

LEHIAKETA IREKIA

1. OBJEKTUA

Baldintza teknikoen orri hauen helburua da ondoko objektua duen zerbitzua lehiaketa irekiaren bidez kontratatzeko baldintza teknikoak ezartzea: Berbalagun Programaren koordinazioa eta kudeaketa.

2. BERBALAGUN PROGRAMA

Durangaldeko AEKk jarri zuen martxan Berbalagun programa, 2003-2004 ikasturtean, Berbaro Elkartearen laguntzarekin, eta Durangoko Udalak dirulaguntza eman dio hasieratik. Programaren helburua da euskara praktikatzeko aukera eskaintzea euskalduntze prozesuan hizketarako gaitasuna garatzen ari diren pertsonei. Horretarako, bidelari (euskaldunberri) eta bidelagunez (euskaldunzaharrez) osaturiko 3-5 kideko taldeak egiten dira, astean behin ordubete edo ordu eta erdiz euskara praktikatzeko.

2020/21 ikasturtean, pandemia beteko sasoian, 75 pertsona inguruk parte hartu dute programan, 9 taldetan. Aurreko urteetako parte hartzea, batez bestekoa, 95 pertsonakoa izan da. Horrez gain, programa horretan hainbat ekitaldi egiten dira ikasturtean zehar: irteerak, bisita gidatuak, mintzodromoa, hitzaldi edo tailerrak…

Programa horren Jarraipen Batzordea osatzen dute, Durangoko Udalak, Udal Euskaltegiak, Durangaldeko AEKk, Hizkuntza Eskolak, Berbaro Elkarteak eta programaren dinamizatzaileak. Halaber, Berbalagun programa udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (ESEP) txertatuta dago.

3. ZERBITZUAREN GIZA-BALIABIDEAK

Berbalagun programa koordinatu eta dinamizatzeko zerbitzua honela eratuko da:

- Dinamizatzaile-koordinatzailea: Berbalagun programa burutzearen ardura izango du.
- Lantalde teknikoa: Laguntza eskainiko dio dinamizatzaile-koordinatzaileari. Pertsona trebatuak izango dira Helduen Euskalduntze Alfabetatzean eta euskararen erabilera sustatzeko jardueretan.
  Honakoek osatuko dute lantalde teknikoa:
  - Entitate esleipendunaren mintzapraktika programen koordinatzaile-arduradunak.
  - Entitate esleipendunaren Durangoko edo Durangaldeko zuzendariak.
  - Entitate esleipendunaren Durangoko edo Durangaldeko kultur ekintzen arduradunak.

4. ZERBITZUAREN BALDINTZA TEKNIKOAK

Berbalagun programaren zerbitzuak, gutxienez, ondoko lanak egin behar ditu:

- Antolaketa denboran:
  - Berbalagun programa ikasturtearekin batera garatuko da, hau da, irailetik ekainera.

- Izen-ematea:
  - Izen-emateari dagozkion komunikazio lanak egin.
  - Interesdunei informazioa eman eta programa azaldu.
  - Izen-ematea bideratu, parte-hartzaileen euskara maila baloratu eta taldekatu.
  - Izen-emate kanpaina irailean egingo da.
- Taldeak martxan jarri eta jarraipena egin:
  - Taldeak martxan jarri (helburuak eta dinamika azaldu).
  - Taldeei jarraipena egin: taldeen egoera, noiz elkartzen diren, bajak, gorabeherak…
  - Taldeak urrian jarriko dira martxan eta jarraipena egingo zaie, gutxienez, bertatik bertara hiru hilero eta, telefonoz edo bide telematikoak erabiliz hilero.

- Ekitaldiak eta ekintza osagarriak: Durangaldeko Berbalagun programaren barruan antolatutako ekintzetan parte hartzeko aukera emango zaie berbalagun kideei.

- Programaren jarraipena: programaren jarraipena egiteko ondoko lanak egingo dira, gutxienez:
  - Bilerak Jarraipen Batzordearekin ikasturte bakoitzean, gutxienez, hiru. Bilera horietan taldeen eta ekintzen jarraipen txostena aurkeztuko du esleipendunak.
  - Amaierako memoria: ikasturtearen amaieran amaierako memoria aurkeztuko du esleipendunak, urte bakoitzeko uztailaren 10a baino lehen.

- Kontratuaren prezioa: kontratuaren prezioan sartuta egongo dira Berbalagun programa koordinatu eta dinamizatzeak eragindako gastu guztiak, joan-etorrien eta antzeko kontzeptuen gastuak barne. Ekintza osagarrien kostua kontratuaren preziotik kanpo geratzen da, Durango Merinaldeko Amankomunazgoak hartzen duelako bere gain gastu hau.

- Taldeak: taldeak 3-5 pertsonakoak izango dira oro har. Dena dela, kasuan kasu beste kopuru batzuetako taldeak ere egin ahal izango dira.

- Taldeen saioak: saioen helburua euskara praktikatzea da eta, beraz, jarduera ludiko eta egoera informaletan garatuko dira. Bidelagunen egitekoa ez da euskara irakasle izatea, baizik eta taldekide guztiek parte hartzea eta euskaraz egiteko sarea lantzen joaten laguntzea.

- Partehartzaile kopurua: 2020/21 ikasturtean, pandemia beteko sasoian, 75 pertsona inguruk parte hartu dute programan, 9 taldetan. Aurreko urteetako parte hartzea, batez bestekoa, 95 pertsonakoa izan da. Horrenbestez, lehiaketa honen bidez esleitzen den kontratuak 60-100 partehartzaile arteko kopuruari eman behar dio zerbitzua, orri hauetan ezarritako baldintza teknikoak betez. Izen-ematea amaitu eta taldeak eratutakoan partehartzaile kopurua 60 pertsona baino txikiagoa baldin bada, esleipen prezioa %20 murriztuko da. Halaber, izen-ematea amaitu eta taldeak eratutakoan partehartzaile kopurua 30 pertsonara iristen ez bada, udalak erabaki ahal izango du programa bertan behar utzi eta kontratua amaitutzat ematea. Kasu horretan esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

5. AURKEZTU BEHAR DIREN DOKUMENTUAK

Eskaintza teknikoan ondoko dokumentu hauek aurkeztu behar dira (administrazio baldintzen orrietan datoz zehaztuta eskaintzan aurkeztu behar diren beste dokumentuak, hala nola, nortasuna eta kaudimena egiaztatzeko dokumentuak eta diru-eskaintza):
Eskaintza teknikoak, gutxienez, atal eta eduki hauek izango ditu:

a. Programaren oinarri metodologikoak.
b. Izen-ematea eta taldeen antolaketa bideratzeko proposamena (komunikazio plana barne).
c. Taldeen jarraipena egiteko modua eta maiztasuna.
d. Ekitaldi eta jarduera osagarrien proposamena.
e. Jarraipen batzordearekin programaren jarraipena egiteko modua.
f. Proposatutako giza baliabideak eta bitartekoak: zehaztu behar da programa koordinatu eta dinamizatuko duen lantaldea eta lantaldeko kideen esperientzia gisa horretako programetan. Halaber, adierazi behar dira lehiatzaileak kontratuaren eskura jarriko dituen bitartekoak.
g. Lan guztien kronograma. Kronograma horretan zehaztuko da, halaber, lan-mota bakoitzerako aurreikusten den ordu kopurua.

Durangon, 2022ko martxoaren 4an.

Euskara teknikaria
Juan Antonio Atutxa

Firmado digitalmente por ATUTXA BALENTZIAGA JUAN ANTONIO - 14949623Z
Nombre de reconocimiento (DN): c=ES, serialNumber=IDCES-14949623Z, givenName=JUAN ANTONIO, sn=ATUTXA BALENTZIAGA, cn=ATUTXA BALENTZIAGA JUAN ANTONIO - 14949623Z
Fecha: 2022.03.04 09:02:34 +01'00'